

Tolosaldeko
Bizikidetzaren eta Aniztasun
PLANA

2017-2020





AURKIBIDEA

Sarrera	5
1. Planaren filosofia	9
Eginkizuna eta ikuspegia	9
Marko kontzeptuala	10
Helburuak	17
2. Planean jasotako jarduerak	19
3. Jardueren kronograma	22
4. Planean jasotako jardueren fitxak	25



SARRERA

XXI. mendeak aldaketa demografiko eta sozial garrantzitsuak ekarri dizkigu Tolosaldera, nagusiki pertsona etorkin atzerritarren etorrerak eragindakoak. Pasa den mende amaieran hasten da horien agerpena ematen, baina batez ere oraingoaren lehendabiziko hamarkadan nabarmentzen dira. Horiek, bertako biztanleriak nahi ez zituen edo betetzera iristen ez zen lanpostuek erakarrita eta horien bidez euren bizitza proiektuak hobetzeko asmoz etorri dira. Biztanleria atzerritarraren benetako dei efektua Euskadiko zein Espainiako lan egiturak eragin du, kualifikazio baxuko zenbait merkatu-hobi betetzea behar zuenak, eraikuntza, nekazaritza, ostalaritza edota etxebizitza zein pertsonen zainketa bezalako sektoreetan nagusiki, baina baita industria edo arrantzari lotutako zenbait zeregin betetzeko ere. Zuzenagoa litzateke beraz beharrian efektuaz hitz egitea.

Espanian zein EAEn bezala, Tolosaldeko eskualdean ere atzerritik etorritakoen gorakada nabarmena izan da azken urteetan. 1998. urtean nazionalitate atzerritarra zuten pertsonen tasa % 0,5 —217 pertsona— izatetik, 2015ean % 6,2 —2.918— izatera pasatu gara. Datu hau EAEkoaren antzekoa da (% 6,3) nahiz eta estatukotik urrun kokatzen den (% 10,1). Nazionalitatearen irizpidea erabili beharrian atzerrian jaiotakoen datua aintzat hartzen badugu berriz, Tolosaldeko atzerrian jaiotakoen ehunekoak 7,4koa da, EAEkoa (% 8,4) baino puntu bat beherago kokatzen da. Beraz, Tolosaldeko datuek erakusten digute Gipuzkoa eta EAEko prozesu beretsuak ari dira ematen eskualdean, baita estatu espainoleko joera orokorra ere, baina bizitasun gutxiagorekin.

Emandako bilakaerari erreparatzen badiogu ere desberdintasunak nabarmentzen dira. Estatuan zein EAEn hazkunde nabarmenenak krisi aurretik ematen dira. Krisi garaian, Estatu mailan etenaldi bat ematen da, EAEn etenik ez da ikusten baina hazkundeak txikiagoak dira. Gipuzkoan bi tendentzia hauek ez dira hain nabariak eta krisi garaian jatorri atzerritarra duen populazioaren hazkunde garrantzitsua eman da. Tolosaldean bigarren dinamika hau are nabarmenagoa da eta 2007. urtetik aurre-

ra jatorri atzerritarra duten pertsonen hazkunde esanguratsua eman da. Beraz, esan daiteke Tolosaldean ez dela gehiegi nabarmendu krisiaren inpaktua migrazio fluxuei dagokienez.

Aipaturiko datuek erakusten digute fase migratorio berri batetan aurkitzen garela, Cachón-ek (2002) Espainiako immigrazioaren hirugarren etapa gisa izendatzen duena eta espainiar estatuan 2000. urtean kokatzen duena. Gure kasuan, fase hau beranduago hasten da immigrazioaren jasotze intentsitate eta erritmoengatik. Momentu hau identifikatzerakoan “ez da soilik 90. hamarkadatik ona etorkinen zifrak modu esanguratsuan hazi izana edo immigrazioa ikusgarritasun nabaria izaten hasi izana, baizik eta fluxuak dibertsifikatu egin direla eta populazio etorkin egoiliarraren egitura aldatzen ari dela, etorkinen lan merkatuaren berregituraketa garrantzitsu bat ematen ari dela, sare migratorioak finkatzen ari direla, lurraldean etorkinen egonkortze bat egertatzen ari dela adierazten diguten gune etnikoak agertzen ari direla, immigrazioari lotutako gatazkak sortzen ari direla (...); baina, batik bat, fase migratorio berri batetan sartzen ari gara hiritargoari eta gizarteratzeari¹ lotutako erronkak kezketan eta eztabaida sozial zein politikoetan lehen mailan kokatzen hasi direlako, hezkuntza, bizilekua edota lan merkatua bezalako esparruetan” (Cachón 2006).

Dasseto-k (1990) jadanik aurreratzen zuen, ziklo migratorioaren hirugarren uea “ezarpenaren iraupena (...), kokapen bikoitzeko liderren² sorrera eta haurren agerpena, horien hazkuntza eta eskoletan sartzea, eta ondorioz bizi diren gizarteko denbora sozialean pausoz pauso prozesu makal batetan inskribatuz joatea eta norbanako eta familien elkarrekiko aintzatespena dakarren” prozesu baten ostean ematen dela azpimarratzean.

Funtsean, orain dela urte batzuk lehentasuna etorkinen harrera baldin bazen, gaur egun gure arreta dibertsitatearen kudeaketara bideratu behar dugu, etorkin eta autoktonoen arteko integrazio eta bizikidetzara. Gaur egun, Tolosaldeko gizarte errealtatea askotarikoa bilakatu da: eskualdean atzerritarrak diren eta atzerriko nazionalitatea duten pertsonekin; jatorri atzerritarrekoak diren baina nazionalitate espainiarra dutenekin; jatorri nazionaliko eta nazionalitate espainiarra duten edo baita atzerritarra ere dutenekin; arbaso atzerritarrak dituzten baina Euskadin edota Espainian jaio diren eta nazionalitate espainiarra dutenekin; arbaso atzerritarrak dituzten baina Euskadin edota Espainian jaio diren eta nazionalitate atzerritarra dutenekin etab. elkarbizi gara. Guzti horrek arraza, etnia, hizkuntza, ohitura, erlijio, balio, sinesmen, mundu-ikuskeraren aniztasuna eragiten du.

Aniztasun hori gelditzeko iritsi da: gure komunitatearen fisionomia eta osaketa erreala aldatu egin da. Hain anitza izango ez den etorkizun bat pentsatu beharrean, are anitzagoa izango dela kontziente izan behar dugu. Eta testuinguru honetan tratatu berdintasunaren, eta arraza, etnia edo jatorria dela eta diskriminaziorik ez egitearen aldeko borroak garrantzia berezia hartzen du, bizikidetza hobe baterako ardatz na-

¹Co-inclusión.

²Líderes biposicionados.

gusi eta gida gisa. Etorkizunean gizarte justuago, kohesionatuago eta desberdintasun sozial gutxiagoko bat irudikatu eta bide horretan arrera egin nahi badugu, bera osatzen duten kideen arteko mugikortasun bertikala sustatu behar dugu, eta horretarako *sine qua non* baldintza da tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza.

Deskribatutako errealitatea ikusita, Tolosaldea Garatzen —baita Tolosaldeko zenbait udalerrri ere— atzerritik etorritako pertsonen harrera egoki bat egitearen eta bertako zein kanpotik etorritako herritarren arteko bizikidetzaren armoniatu bat lortzearen garrantziaz jabetu da fenomenoaren hasieratik, eta helburu hori bete nahian hainbat ekimen garatu ditu. Besteak beste 2007-2009 denboraldirako Tolosaldeko I. Inmigratio Plana “Elkar Ezagutzen” aipatu daiteke, 2003ko Inmigratioari buruzko Euskal Planaren ildoari jarraitu nahi ziona, eta helburu nagusia atzerritik etorritako herritarrei harrera egoki bat egiteko udal zerbitzu guztien eta bestelako erakunde zein elkarrekin koordinazioa hobetzea eta kulturalki anitza den kohesiozko gizarte bat lortzea zelarrik. Bertan, Tolosaldeko migratioaren errealitatea datu kuantitatiboek oso laburki lantzen zen, gaiaren baitan nazioarteko, estatuko zein EAE mailako legediaren azterketa burutzen zen, hainbat kontzeptu argitu eta planaren funtsezko printzipioak zehazten ziren, hala nola, berdintasun irizpidea bermatzea, erantzukizun publikoa bereganatzea eta gizarteko partaidetza sustatzea. Azkenin hainbat ekintza zehazten ziren gizarteratzeari dagozkion arlo desberdinetan aurrera eramateko: harrera eta gizarte baliabideak, etxebizitza, lana, hezkuntza, osasuna, partaidetza, sentsibilizazioa, euskara eta bakarrik dauden adin txikiko etorkinak³.

Geroago, 2013. urtean hain zuzen, Aztiker ikerketa taldearekin batera *Tolosaldeko herritarren jatorri anitzen mapa* izeneko txostena lantzen da. Ordurako atzerritik etorritako pertsonen presentzia oso nabarmena zen, eta beraz errealitatearen lanketa sakonago bat beharrezkoa zen. Txostena bi atal nagusitan egituratzen da, lehendabizikoan datu kuantitatiboaren azterketa guztiz xehetua burutzen da. Lehenik datu demografikoak lantzen dira, hau da, Tolosaldean orokorrean eta bertako herri bakoitzean dauden atzerritarren inguruko datuak aurkezten dira: zenbat diren, zein jatorritakoak, adina, sexua, etab. Eta ondoren hezkuntza datuen azterketa egiten da. Bigarren atalean berriz eremu ezberdinen araberrako datu, iritzi eta pertzepzioak jasotzen dira, hala nola: lana eta enplegua, aniztasunarekin lan egiten duten elkarrekin, kulturaren arloa, euskara, osasuna, gizarte zerbitzuak, erakunde publikoetan aniztasunaren kudeaketa, etxebizitza, diskriminazio, atzerritartasun legedia eta eraginak eta justiziarren eta herritarren segurtasuna.

Txosten horrek Tolosaldeko migratioaren inguruko argazkia eskaintzen digu, baina ez da elkarbizitza hobetze aldera jarraitu beharreko ekintza zehatzik proposatzen. Hori dela eta, nolabait aurreko plan eta azken txosten horren jarraipen bat izatea nahi du Tolosaldea Garatzen eta Ikuspegi – Inmigratioaren Euskal Behatokiaren artean 2017-2020 denboraldirako burutu den Tolosaldeko Bizikideta eta Aniztasun Plan honek. Horretarako, Tolosaldeko eskualdean inmigratioaren gaur egungo egoera zein

³Garai hartan Tolosan bakarrik emigratutako adin txikiko etorkinentzako zentro bat zegoen.

den ezagutzeko diagnosi estatistiko bat burutu da lehenik, bigarren mailako informazio iturrietatik datozen datuetan oinarrituta, Tolosaldean immigrazio eta gizarteratze prozesuen inguruko gakoak ezagutzeko bidea eman dutenak. Hortik abiatuta, Tolosaldeko immigrazio eta elkarbizitza esparruan ekintza politikoaren etorkizunerako ardatzak eta gizarte sarearekin ekintza eta jarduketarako ildoak ezarri dira 2017-2020 Bizikidetza Planean.



PLANAREN FILOSOFIA

Eginkizuna eta ikuspegia

Tolosaldea Garatzen-ek eta Tolosaldeko herri desberdinetako udalek hiritargoari zerbitzua emateko bokazioz burutu behar du bere funtzioa, bere beharrezan modu eraginkor eta hurbilekoan erantzuna emanaz. Pertsonak bere gobernu jardueraren ardatz nagusian jartzen dituen kudeaketa batekin eta gizarte ikuskera zabal, barneratzaile eta integratzaile, eta solidario batekin, tratu berdintasunarekiko eta gizarte kohesioarekiko apostua eginez.

Zentzu honetan, eta Immigrazioaren, Herritarren eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Estrategiaren ildoei jarraikiz, Tolosaldea Garatzen-ek 2017-2020 denboraldirako bere lehentasunen artean pertsona migratzaileekiko berdintasunezko tratua lortzera bideratutako lan ildo bat ezartzen du, gizarte kohesioaren kontra erasotzen duten eta aurreiritzi eta estereotipoek elikatzen dituzten diskriminazioaren eta xenofobiaren aurkako borrokan erdiratzen dena.

Lan hori modu integralean bultzatzea planteatzen da, diskriminazioari dagokionez esku-hartze esparru desberdinak barne hartuz (instituzionala, estrukturala eta pertsonen artekoa), immigrazio atzeritarraren aurrean sortzen diren eta gizarte kohesio zein bizikidetzak kalte egiten duten estereotipo negatibo eta aurreiritziei aurre egiteko funtsezko sektoreetan eraginez (Udaletako pertsonal politiko eta teknikoak, komunikabide lokalak, hezkuntza komunitatea, elkarteak eta hiritargoa), eta beste instituzio publiko zein gizarte organizazio batzuekin elkarlanean aritzearen aldeko apostua eginez.

Marko kontzeptuala

2016–2020 Bizikidetza Plan hau biztanleriak, gizataldeak eta edozein nazionalitate, jatorri eta/edo arbasotako pertsonen barne hartzea eta gizarteratzea bermatzeko tresna gisa ulertu behar da, Tolosaldeko herrietako bizikidetzan positiboki eragin behar duena.

Tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza

Plan honek barne hartzen dituen helburu eta ekintza guztiak tratu berdintasuna —eta pertsonen arteko diskriminaziorik eza— eta pertsona guztien aukera berdintasuna *sine qua non* baldintza gisa hartzen dituen ikuspegitik burutu dira, etorkizuneko gizarte bidezkoago eta bateratuago bat eraikitzeko asmoz.

Plan honek **berdintasunezko tratua** bilatzen duela diogunean “arrazan, etnien edo erlijio arrazoietan, sinesmenetan, desgaitasun, adin edota sexu-joeran oinarritutako zuzeneko zein zeharkako diskriminaziorik ez egitea” gisa ulertzen dugu hori, 2000 eta 2002an onartutako Europar Batasuneko zuzentarauetatik hartu delarik definizio hori (Europar Batasunaren Kontseiluaren 2000/43/CE Zuzentaraua, 2000ko ekainaren 29koa, Europako Komunitateen Egunkari Ofiziala, L180, 2000.7.19; Europar Batasunaren Kontseiluaren 2000/73/CE Zuzentaraua, 2001eko azaroaren 27koa, Europako Komunitateen Egunkari Ofiziala, L303, 2000.12.2; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/73/CE Zuzentaraua, Europako Komunitateen Egunkari Ofiziala, L296, 2002.10.5).

Modu generikoan, **diskriminazio** gisa ulertzen dugu “gizarte bizitzako esparru desberdinetan talde batekiko (eta/edo talde hori osatzen duten norbanakoekiko) tratu bereizi eta desberdindua burutzea, gizartean, talde menderatzailearekin alderatuz ezberdintasun negatibo gisa eraikitako zenbait ezaugarriren arabera (egiazkoak, egoztiak edo imajinarioak) (Poiret eta Vourc’h, 1998).


Aipaturiko gizarte bizitzako esparruen artean bereziki esanguratsuak dira etxebizitza, hezkuntza eta enplegua, baina baita esparrurik inmaterialena ere, eguneroko elkarbizitzarekin harremanduta dagoena eta mikrosozial izendatu dezakeguna (aisialdiarekin harremandutako aspektuak, adiskidetasun sareak, familia harremanak, etab.).

Diskriminaziozko jardueren esparruak

Ikuspuntu operatibo batetik, Tolosaldeko eskualdean bizi diren pertsona guztien tratu berdintasuna bermatzeko asmoz, arreta jarri beharreko diskriminaziozko jardueren hiru esparru bereiziko ditugu; hala nola, esparru instituzionala, egiturazkoa eta pertsonena.

- a. **Diskriminazio instituzionala:** Cachón-ek (2003 eta 2006) lan esparruari erreferentzia eginez burutzen duen definizioari jarraikiz, baterako bizikidetzara eta bere dimentsio guztietara (hezkuntza, etxebizitza, enplegua, mikrosoziala) estrapolatu daitekeena, esparru instituzionalean tratu berdintasuna ez dela betetzen eta diskriminazio instituzionala gertatzen dela ulertzen dugu “indarrean dauden arau publikoetatik eta administrazio-jardueretatik planteatzen” denean eta “marko instituzional diskriminatzaile bat” eragiten duenean.

Gure proposamena esparru honetan, orokorrean Tolosaldeko maila instituzionaletik, baina zehazki udaletatik datozen araudiei, zirkularrei, erregelamenduei, gidalerroei, etab. dagokienean tratu berdintasuna eta diskriminaziozko jarduerak ekiditea bermatzen duten ekintzak lantzea eta martxan jartzea da.



- b. **Egiturazko diskriminazioa:** gizarte egituraren “dispositibo orokorretatik”, bere jardunbideetatik eta berekin dakartzan desberdintasunetatik datorren diskriminazioa litzateke. Zeharka, iturri sekundarioetako datuetatik identifikagarria da, funtsean estatistiketatik, hala nola, langabezia datuetatik, diru-sarrera pertsonalekoetatik, prekaritate edo ezegonkortasunezkoetatik, txirotasunezkoetatik, gizarte laguntzen jasotzaile diren pertsoneri dagozkienetatik, etab.

Egiturazko esparruan tratu berdintasuna bermatzea proposatzen ditugun hiru zereginetatik korapilatsuen da. Hori lortzeak desberdintasun sozialik gabeko (edo desberdintasun “onargarriak” dituen) gizarte bat lortu izana esan nahiko luke, inklusiboa edo barne-hartzailea, solidarioa eta erabateko kohesiozkoa. Egoera utopiko batetaz mintzatuko ginateke. Baina gauza bat da gizarte egituran zenbait desberdintasun onartzea eta bestea, desberdintasun horiek gaitasun indibidual eta pertsonen dohainekiko independenteak izatea, eta generoan, adinean, arrazan, jatorrian, etab. oinarrituta egotea. Desberdintasun horiek dira etorkizuneko gizarte bidezkoago baten mesedetan aurre egin beharrekoak.

2017-2020 Bizikidetza Plan honek aukera eta tratu berdintasunerantz joatea ahalbidetuko duten ekintzak txertatuz, sustatuz eta sostengatuz nahi du lan egin esparru honetan, eta gure imajinario sozialean kokatuta dauden zenbait inertzia apurtu. Besteak beste, gure imajinario sozialean nazionalitate, jatorri eta/edo arbaso atzerritarrak dituzten pertsonak lan ezegonkorrenak, penagarrienak eta/edo arriskutsuenak dituzten merkatu-hobietan kokatzean datza. Baina zerikusia du baita ere, esaterako, udalerrri batetako zenbait ikastetxek mota batetako edo besteko ikasleria jaso behar duteneko onarpenarekin.

- c. **Pertsonen arteko diskriminazioa:** “aktoreekin” sortzen dena, zuzenean pertsonen artean sortzen dena, diskriminazio “indibiduala, maiz irekia, askotarikoak izan daitezkeen aktoreekin”.

Nahiz eta, Cachón (2006) eta Poiret eta Vourc’h-ek (1998) argi adierazten duten moduan “ez dagoen harreman automatikorik aurreiritzi eta jokamolde arrazisten artean”, esparru honetan immigrazio atzerritarraren inguruko estereotipo eta aurreiritzi negatiboei aurre egiteko lanean barneratzen gara, jarrera positiboak eragiteko, tratu berdintasuna errazteko eta pertsonen diskriminazioari aurre egiteko *sine qua non* baldintza gisa.

Cachón-ek (2006) arrazakeriaren hiru dimentsioak aipatzen dituenean, “aurreiritzi gisa (estereotipoak, iritziak, sinesmenak, etab.), praktika gisa (diskriminazioak, segregazioa, indarkeriak, etab.) eta ideologia gisa (teorriak, doktrinak, munduaren ikuskera)”, nolabait udal mailako ekintzak modu eraginkorrean lan egin dezaketen esparruetara bideratzen gaitu.

Gure ikuspuntutik, helburua ez da horrenbeste herrian tratu berdintasuna teoria arrazista handiei eraso eginez (arrazaz txuriak beltzarekiko duen gailentasuna, esaterako, edo nazismoa) lortzea; bai ordea pertsona atzerritarrekiko estereotipo faltsuak eta negatiboak baztertuz, jarreraren osagai kognitiboetatik abiatuta jarrera xenofoboak finkatzea besterik eragiten ez dutenak; eta aurreiritzi negatiboei (aurreiritzizko jarrerak) aurre eginez, jokamolde diskriminatzaileak garatzera bideratzen duten edo bideratu dezaketanak (ekintzarako alde aurretiko joera).

Jarduerarako lehentasunezko esparrua

2017-2020 Bizikidetza Plan honek enfasi berezia jartzen du elkarbizitza pertsonen arteko tratu berdintasuna sustatzearen eta pertsonen arteko diskriminazioari aurre egitearen bitartez lantzeko, esparru instituzionala eta egiturazkoa ahaztu gabe. Pertsonen arteko tratu berdintasuna lortzeko ekintzak jadanik ezaguna den “zurrumurruen aurkako estrategia”-ren baitan kokatzen dira, honezkero Euskadiko, Espainiako eta Europako beste zenbait herritan martxan jarri dena, eta Jarrera⁴ Aldaketan Teoriaren baitan ulertu behar dena. Horretarako beharrezkoa da zenbait kontsiderazio kontzeptualetan arreta jartzea: jarrera kontzeptua, jarreraren osagaiak, osagaien arteko harremanak eta estereotipo eta aurreiritziak.

- a. **Jarrera kontzeptua.** Pertsona batek immigrazio atzerritarren eta pertsona atzerritarren aurrean erakusten duen alde aurretiko portaera⁵ pertsona horrek horiekiko duen jarreraren arabera izango da. Bere bizitza esperientziaren eta bere bizitzan zehar jarrera hori bere baitan nola eratu denaren arabera positiboa edo negatiboa izango da erakusten duen portaera.

Jarrera bat, hots pertsona etorkin edo atzerritarren aurrean izan daitekeena, bizitzan zehar eratzen da eta aldagai, informazio, bizipen, datu, sentsazio, sinesmen, esperientzia, sentimendu, balio, egoera, gertaera, etab. multzo batetaz osatuta dago, euren artean gurutzatuta daudenak eta elkarreragiten dutenak.

Jarrera bat “norbanakoak objektu soziokultural jakin batekiko pentsatzen, sentitzen eta egiten duenari dagokion konposatu psikiko bateratu bat” gisa definitu daiteke (Gerardo Pastor Ramos, 1978)⁶.

- b. **Jarreraren osagaiak:** Laburbilduz, jarrera batek hiru dimentsio edo osagai ditu: kognitiboa, afektiboa eta konatiboa.


Jarrera baten **osagai kognitiboa** pertsona bat jarrerari dagokionean bere bizitzan zehar metatuz joan den izaera arrazionalako informazio guztiak eratzten du. Datuetaz, informazioaz, diskurtsoetat, esperientzietaz, etab. ari gara hitz egiten, beti ere izaera arrazionala dutenak. Dimentsio kognitibo hau edozein objektu psikosozialekiko sinesmen ideologiko (pertzepziozko irudia, proposizio intelektuala) gisa ere izan daiteke ulertua. Jarrera orok noziozko, irudimenezko, pertzepziozko, ideagintzazko eta kontzeptuzko materialeak ditu.

⁴Erdarazko “actitud” gisa ulertua.

⁵Erdarazko “comportamiento” gisa ulertua.

⁶Gerardo Pastor Ramos: “Ensayo de Psicología Social sistemática”. Universidad Pontificia de Salamanca. Salamanca, 1978

2. irudia.
Jarreraren osagaiak



Osagai afektiboak gure jarrera bideratzen dugun horrek sortzen digun sentimenduarekin zerikusia du. Immigrazioa eta pertsona atzerritarrekiko jarrerari dagokionez horiekiko sentitzen duguna litzateke: jakin-mina, elkartasuna, ziurgabetasuna, beldurra, adiskidetasuna, gorrotoa, enpatia, errukia, ukapena, lehia, etab. baina beti ere ikuspegi irrazional batetik. Jarrerak, euren osagai afektiboari dagokionez, sentimendu gisa hobeto deskribatuak izan daitezke emozio gisa baino.

Bi osagaiak oreka bilatzen dute, nahiz eta badakigun immigrazio eta pertsona atzerritarren inguruko jarreretan, horiek aldekoak (xenofilia) edota kontrakoak (xenofobia) izanik ere, paper protagonista osagai afektiboak hartzen duela, pisu gehiena duelako eta jokabiderako pautak markatzen duelako. Baina garrantzitsua da baita ere osagai kognitiboak betetzen duen papera, jarreraren oinarri eta euskarri gisa oro har.

Izan ere, jarrerak ekintzarako alde aurretiko joerak dira (osagai konatiboa): jarrera xenofiliazkoa bada, immigrazio eta pertsona etorkinekiko jokabide positiboak agertzeko joera izango dut, aldiz jarrera xenofobiazkoa bada, horiekiko portaera negatiboak garatzeko joera izango dut. Objektu baten aurrean modu finko edo ez hain finkoan erreakzionatzeko gaitasun edo joera litzateke, eta batzuetan kanpo-jokabideetan behagarria izan daitekeena, nahiz horiek motorikoak eta ahozkoak, edo nahitakoak eta sinbolikoak izan.

Pertsonaren testuinguruak eragina izango du ekintzarako alde aurretiko joeran. Immigrazio eta pertsona atzerritarren aurrean jarrera positiboa duten pertsonak horiekiko jokabide positibo bat agertzeko joera izango dute beti ere inguruak ahalbidetzen badie, baina zenbaitetan ezingo dute egin, izan ere,

egoerak, euren berezko eta guratako ekintza oztopatu dezake, kontraesan argia eraginez. Muturreko adibide bat jartze aldera, immigrazio eta pertsona atzerritarrekiko jarrera positiboa erakusten duen pertsona batek kontrako erreakzioak edo gutxienik neutroak ez direnak izan ditzake, bere xenofilia agertu gabe, delitu bat burutu duen atzerritar batekin suminduta dagoen pertsona talde baten baitan aurkitzen bada. Modu berean, jarrera negatiboa duen pertsona bat nekez agertuko da zentzu koherentean hondamendi natural baten baitan modu heroikoan jokatu duen pertsona atzerritar baten aurrean.

Ekintza burutzerako orduan pertsonaren testuingurua eta egoera jarreraren osagai konatiboaren baitako funtsezko elementuak izango dira.

- c. **Jarreraren osagaien arteko harremanak.** Orokorki dimentsio afektibo eta portaerari dagokion dimentsioaren artean harreman gehiago badago (batik bat jarrera xenofoboetan), hirurek dituzte loturak eta oreka bat eskatzen dute.

Pertsonok jarreraren osagai afektibo eta kognitiboaren arteko desoreka eta inkoherentzia ekiditen ahalegintzen gara. Disonantzia kognitibo gisa ezagutzen dena ekiditen ahalegintzen gara, ezin dugulako jarrera “bipolar” batekin bizi: ezin gara gaizki sentitu pertsona atzerritarren aurrean eurekiko gure informazio arrazional guztia positiboa bada, aldi berean, ezin gara gus-tura sentitu eurekin gure ezagutza guztia elementu negatiboez osatua badago. Bi osagaien artean oreka bilatzen dugu, ekintzara zentzu batetan edo bestean eramaten gaituztelarik.

Pertsonok koherentzia eta sendotasuna behar dugu eta bilatzen dugu jarrera baten hiru osagaien artean gure buruarekin ondo sentitu gaitezen.

Orekaren eta sendotasunaren bilaketan, eta disonantzia kognitiboa ekidin edo gutxitzeko ahaleginean, estereotipoek funtzio garrantzitsua betetzen dute.

- d. **Estereotipo eta aurreiritziak.** Estereotipoak talde bati egotzitako bidegabeko orokortzeak baino ez dira, talde sozio-kultural batetako kide guztiak ezagarritzen dituen kategoria mentalak, faltsuak edo oso zehaztugabeak izan ohi direnak. “Aurreiritzizko jarrerei” lotuta egon ohi dira, hau da, ezinikusi edo gorrotosko sentimendu eta jokabide diskriminatzaileei. Adibide bat jartze aldera, pertsona atzerritar batek delitu bat burutzen badu, estereotipoak pertsona horren taldekide guztiak delitugileak direla pentsatzera garamatza.

Esparru arrazionalari dagokie eta ondorioz euren bizitza jarreraren osagai kognitiboan garatzen da. Esparru honetan biltzen da informazioa modu antolatatuagoan edo ez hain antolatuan eta enpiriko zein teorikoki oinarritutako diskurtso, datu, esperientzia etab. eran.

Maila arrazional batetan gaude eta norbanakoa pertsona atzerritarrei buruz jasotzeko gai den informazio guztia esparru horretan kokatzen da, eta jarre-

raren osagai kognitiboari forma ematen dio. Hori, oro har, immigrazio eta pertsona atzerritarrekiko positiboa bada, batik bat jarrera horrekin koherentea den informazioa edukiko du, edo gutxienik pisu gehiago izango du informazio positiboak negatiboak baino.

Gizarte diskurtsoetan existitzen diren estereotipo negatiboetan oinarritzen dira immigrazio eta pertsona atzerritarrekiko jarrera negatiboak. Horregatik dira beharrezkoak jarrera xenofoboak agertzen dituzten pertsonentzat, euren erreakzio afektiboekin koherenteak izanik jarrera xenofoboa bera bermatu, sustatu, indartu eta kohesionatu egiten dutelako, eta pertsona izaera xenofoboko ekintzak burutzeraz bideratzen dute, beti ere testuinguruak baimentzen, onartzen edo sustatzen badu.

Funtsean, aurreiritzia estereotipoarengandik bereizten da lehendabizikoa benetako jarrera delako, estereotipoak berriz osagai kognitibo bat baino ez du benetakoa edo faltsua izan daitekeena. Aurreiritzizko sentimenduek pertsonak horiek justifikatzen ahalegintzea eragin dezakete, bere erakargarritasunezko edo ukapenezko joera afektiboekin bat datozen estereotipoak (teoriak) bereganatuz.

Xenofobia bezalako aurreiritzizko jarrerei aurre egiteko lanerako planteamendua

Estereotipo negatiboari errealitatearekin bat datorren informazioa, datuak, esperientziak istorioak, diskurtsoak, etab. erabiliz aurre egin behar zaie bi arrazoirengatik:

1. Diskurtso xenofoboak ahuldu eta hondatzeko, pertsona xenofoboen osagai afektiboaren (sentimenduak) kontra doan informazioa emateko, disonantzia kognitiboa eragiteko, jarrera xenofoboen barneko oreka eta sendotasuna hausteko, diskurtso xenofoboak desitxuratzeko, portaera xenofoboak oztopatzeko eta, funtsean, pertsona xenofoboen baitan jarrera aldaketa eragiteko.
2. Diskurtso xenofiloak finkatzeko eta sustatzeko, pertsona xenofiloen osagai afektiboarekin (sentimenduak) bat datorren informazioa emateko, disonantzia kognitiboak ekiditeko, jarrera xenofiloen barneko oreka eta sendotasuna babesteko, diskurtso xenofiloak argitzeko, portaera xenofiloak errazteko, eta, funtsean, pertsona xenofiloen baitan jarrera aldaketa ekiditeko.

Xenofobia bezalako aurreiritzizko jarrera aldaketen esparruan (“gutxiengo zein gehien-go taldeen aurka aurkakotasuna, ukapena, ezinikusia, ulertezintasuna eta ikarari dago-kion mota etnozentrismoaren aurreiritzia”⁷), kontutan izan behar da manipulatzeko eta aldatzeko bereziki gogorra eta zaila den aurreiritzi batetaz ari garela, izan ere, bere osa-

⁷Gerardo Pastor Ramos, o.c., 1978

gai afektiboa oso bizia da eta osagai kognitibo edo ideologikoak nekez eragin diezaioke. Garrantzitsua da bere osagai guztietan erasotzea, ez soilik estereotipoen esparrutik (osagai kognitiboa) eta maila arrazionalen.

2017-2020 Bizikidetza Plan honetan, pertsonen diskriminazioaren aurkako borrokaren esparruan, jarrerren hiru osagaietan erdiratuko gara (kognitiboa, afektiboa eta konatiboa) jarrera xenofoen mobilizazioan eta jarrera xenofiloen finkatzean jarduketarako ikuspegi integral batek soilik izango duela arrakasta uste baita. Dimentsio batetan eraginda beste bietan burututako ekintzak indartuko ditugu, jarrerren hiru esparruen arteko elkarreragina dela eta. Hain zuzen, jarrerren hiru dimentsio edo osagaietako eta horietako bakoitzaren baitan egitea proposatu genituzkeen ekintzetan burutzen dugun banaketa, sinplifikazio metodologiko bat besterik ez da, horiek berez banandu ezinak direlako eta bakoitzaren baitan egindako ekintzak eragina izango dutelako, neurri handiagoan edo txikiagoan, zuzenean edo zeharka, immigrazioaren eta pertsona atzerritarren aurreko jarrerren hiru osagaietan.

Badakigu jarrerak sinesmen, ulerkerak, sentimendu, filiazio, balio, etab. osatutako multzo artikulatu bat direla, oso egonkorak eta aldaketarako uzkurak, baina plan honen eta bere estrategien ikuspegiak Tolosaldeko kulturarteko elkarbizitzan modu aktiboan lagunduko dueneko uste osoa dugu.

Helburuak

2017-2020 Elkarbizitza Planaren **helburu nagusia** Tolosaldeko eskualdean 2017-2020 denboraldirako immigrazio eta elkarbizitza esparruan esku-hartzeko ardatz nagusiak azaltzen dituen, ekintza politikorako proposamenak planteatzen dituen eta lanerako gida bat eskaintzen duen ekintza plan bat eratzea da.

Helburu nagusi hori lortzeko, beste zenbait helburu espezifiko zehazten dira:

- 1. helburu espezifikoa: **Udaleko pertsonal tekniko zein politikoa**. Udaletako pertsonal tekniko zein politikoa hausketa erraztea pertsona etorkinen inguruan existitzen diren aurreiritziei dagokionean eta aurreiritzi horiek etorkinak zerbitzu publikoetara berdintasunezko baldintzen arabera sarbidea izatean eta gizarte kohesioan duten eraginari dagokionean; eta administrazioetik horiei aurre egiteko estrategiak definitzea.
- 2. helburu espezifikoa: **Komunikabideak**. Komunikabide lokalak sentsibilizatzea aniztasun kulturalaren eta immigrazioaren tratamenduari dagokionean, estereotipo eta zurrumurruren hedapena ekidinez.
- 3. helburu espezifikoa: **Hezkuntza komunitatea**. Ikasleria atzerritarren harrera antolatzeke ikastetxeekin eta hezkuntza eragileekin elkarlanean aritu, *Harrera on* programarekin jarraituz.

- 4. helburu espezifikoa: **Gizarte sarea (elkartek)**. Etorकिन elkarreei babesema eman eta horiekin elkarlanean gizarte kohesioa zein bizikidetza kaltetzen duten atzerriko immigrazioaren inguruan sortutako estereotipo negatiboen aurka borroka egin.
- 5. helburu espezifikoa: **Gizarte**. Aniztasunaren aurrean jarrera positiboa agertzen duen Tolosaldeko hiritargoa aktibatzea kulturarteko elkarbizitza ikusgarri egin eta horren aldeko jokabideak zabaltzeko eta immigrazioaren zein aniztasun kulturalari dagokionean nagusitzen diren estereotipo negatiboak, topikoak eta zurrumurru faltsuak indargabetzeko, elkarrekintza eta bizikidetza zaildu eta jokabide diskriminatorio eta xenofoboak eragin ditzazketenak.

2017-2020 Bizikidetza Plan honetako ekintza guztiak, datozen orrialdeetan deskribatzen direnak, hiru esparru edo dimentsio nagusitan biltzen dira, aurre egin nahi dieten diskriminazio motaren arabera: diskriminazio instituzionala, diskriminazio estrukturala eta diskriminazio interpersonala.

3. irudia.

Esku-hartze esparruak eta ekintzak (adibideak)





PLANEAN JASOTAKO JARDUERAK

Atal honetan 2017-2020 Bizikidetza Planean jasotzen diren 21 jarduerak azalduko dira laburki, bereizi diren hiru esparru nagusietan bilduta daudenak:

Berdintasunezko tratu instituzionala bermatzeko jarduerak: Tolosaldeko udalek bere arau, erregelamendu, barne zein kanpo zirkular eta abarretan herrian bizi diren pertsona guztien tratu berdintasuna sustatzea ahalbidetzen duten ekintzak bilduko lirarteke jarduera talde honetan.

Berdintasunezko tratu estrukturala bermatzeko jarduerak: jarduera talde honek ez du diskriminazioaren borrokari lotutako helburu zehatzik, baizik eta sozializazio prozesu orokorren baitan txertatzen dira eta herriko zein euskal gizarteko gizarte egituraren eragitea dute helburu, Tolosaldeko bizilagunen arteko aukera eta tratu berdintasuna bilatuz.

Berdintasunezko tratu interpertsonala bermatzeko jarduerak: jarduera talde hau, orokorrean, zurrumurruen aurkako estrategiarekin zuzenki harremanduta dago, hau da, korporaziotik jatorri eta/edo arbaso atzerritarak dituzten pertsonetikiko aurreiritzi eta estereotipo negatibo eta faltsuei aurre egiteko bultzatu nahi diren ekintza desberdinak biltzen dira hemen. Jarduera hauek jarrera, alderdi afektibo eta portaerari dagozkionak aldatzeko aspektu konitiboak lantzera bideratuta daude.

20 ekintzetatik 6 dimentsio instituzionalarekin harremanduta leudeke, 9 dimentsio estrukturalarekin, eta 6 interpertsonalarekin.

1. Dimentsio instituzionala (6)

- 1.1. Udaletako osoko Bilkuretan elkarbizitzaren alde eta diskriminazioaren aurkako adierazpen instituzionala gauzatu dezatela.
- 1.2. Tolosaldeko udalek zero tolerantzia adostu dezatela eta elkarbizitzaren udal dispositiboak eratu (diskurtso politikoan, adierazpen instituzionaletan, etab.).
- 1.3. Zerbitzu municipal desberdinetako araudia eta sarbide izapideak berrikusi, horietarako sarbidean edo erabileran egon daitezkeen oztopoak detektatu eta/edo gainditzeko.
- 1.4. Diskriminazio egoera eta eskubide urraketak detektatzeko udal dispositiboak eratu (diskriminazioaren ikusgarritasuna bermatzeko).
- 1.5. Herrietako elkartean planaren ildo jarraitzen duten jardunbideak indartu, udaletik lagunduak. Kulturartekotasun eta berdintasunezko tratua aldeko irizpideak errespetatu, planean agertzen diren ekintzei loturiko eskaerei lehenetasuna eman eta kulturartekotasuna euren egitura eta funtzionamenduan sar-tzea sustatu.
- 1.6. Tolosaldeko erakunde publiko, udal-teknikari eta eskualde kanpoko eragile ezberdinen arteko koordinazioa sustatu aniztasun kulturala arlo ezberdinetan barneratzeko.

2. Dimentsio estrukturala (8)

- 2.1. Planetik ondorioztatzen den berdintasunezko tratua erakiko, kulturartekotasunarekiko eta diskriminazioaren aurkako borroka erakiko konpromisoa sozializatu udaletako sail eta zerbitzu municipal desberdinetan, elkartean eta Tolosaldeko herritarrengan.
- 2.2. Migrazio Mahaiarekin jarraitu eta sendotu.
- 2.3. Migrazio Mahaiko Lan eta Formakuntza lan taldea indartzea.
- 2.4. Iritsi berrien harrera eta gizarteratze protokoloarekin jarraitu (*Ongi Etorri* harrera programa birplanteatu).
- 2.5. Jatorri atzerritarreko emakumei harrera egin eta ahalduntzeko eta horien gizarteratzea sustatzea helburu duten proiektuak lehenetsi eskaini eta berrikusi (Guretzako ekimena).

- 2.6. Formazioa eman eragile desberdinei (ikastetxe, komunikabide, Udal Gobernu, etab.).
- 2.7. Ikastetxeekin modu koordinatuan lan egin ikasle iritsi berriengan euskara sustatzen jarraitzeko (*Harrera-on* programarekin jarraitu).
- 2.8. Euskara eta lan formakuntza eta orientazioa lantzeko programak garatu eta bultzatu maila desberdinetan: euskara ezagutzen ez dutenentzat, gutxieneko oinarri bat dutenentzat, etab.

3. Dimentsio interpertsonala (6)

- 3.1. Udaletako pertsonal teknikoarentzako zurrumurruen aurkako tailerra antolatu. Pertsonal teknikoa euren zereginak burutzerakoan aniztasun, tratu berdintasun eta estereotipo zein aurreiritzien aurkako borrokan formatzea.
